

Ikusita Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, 2022-KALD-000018-00 zenbakiduna.

Ikusita kontu-hartzaileak idatzitako txostenaren arabera espediente bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Ikusita kontu-hartzaileak egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena, honakoa **ERABAKITZEN DUT**:

**Lehenengoa.-** Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espediente, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

#### KREDITU GEHIGARRIAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	123.746,49
<b>KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA</b>		<b>123.746,49</b>

#### FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	123.746,49
<b>GUZTIRA</b>		<b>123.746,49</b>

**Bigarrena.-** Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailetza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa.

Zarautzen, 2022ko azaroaren 24an  
Alkatea

